

Ingurumenari Buruzko Adierazpena

2007 Bilbo Eskualdea



AURKIBIDEA

I	AURKEZPENA	4	4	XEDEAK ETA HELBURUAK.	
				INGURUMEN KUDEAKETAKO PROGRAMAK	
				(EKINTZA-PLANAK)	16
1.1	Sarrera	4			
1.2	Zuzendaritzaren aurkezpena	4			
1.3	Bilbo eskualdea: BIE	5	5	INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA	18
1.3.1	Erakundearen egitura	6			
1.3.2	Ingurumen Kudeaketako oinarrizko erantzukizunakl	6	5.1	Ingurumenaren Kudeaketa	18
1.4	Hemandako Zerbitzuaren Deskribapena	7	5.2	Ingurumenari buruzko legeriaren betetze-maila	23
1.5	Olu-Ren Eta Eskualdeko				
	Zuzendaritzaren Deskribapen Orokorra	8			
1.6	Ingurumen-Kudeaketaren Sistemaren Norainokoa	9	6	INGURUMENARI BURUZKO BESTELAKO	
				INFORMAZIO INTERESGARRIA	23
2	INGURUMENA KUDEATZEKO				
	SISTEMAREN DESKRIAPENA	10	6.1	Erakundearen beste eremu batzuek ingurumenaren	
				gainean duten jokabidea	23
2.1	Ingurumenerako Politika	10	6.2	Herritarrentzako Komunikazioa eta Informazioa	24
2.2	Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren Aurkezpena	11	6.3	Hornitzaileek Ingurumenaren Gainean Duten Jokabidea	24
2.2.1	Ingurumenerako Politika	12	6.4	Ingurumen-kudeaketako inbertsioak	24
2.2.2	Plangintza	12	6.5	Ingurumenaren Gaietako Garabeherak	25
2.2.3	Ezarpena eta Eragiketa	12	6.6	2008ko Erronkak	25
2.2.4	Egiaztapena	13			
2.2.5	Zuzendaritzaren Berrikuspene	13	7	EGIAZTATZEA ETA BALIOZKOTZEA	26
3	INGURUMEN ALDERKIAK	14			
3.1	Ingurumen-Alderdiak Identifikatzea	14			
3.2	Ebaluazio-lirizpideak	15			
3.3	Ingurumen-Alderdi Garrantzitsuak	15			

I. Aurkezpena

I.1 Sarrera

Adierazpen honen xedea da Bilbo Eskualdeko (BiE) ingurumen-alderdiei buruzko informazioa ematea herritarrei eta interesa dutenei, baita erakundearen jardueraren ondoriozko eraginei eta ingurumen-eraginak gutxitzeko eta kutsadura prebenitzeko egiten den ingurumen-kudeaketari buruzkoa ere.

2006ko hasieran, BiEk Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) ezarpena bultzatzea erabaki zuen zenbait Oinarritzako Laguntza Unitatetan (OLU), horien garapen iraunkorra bultzatzeko. 7 OLUk Ekoscan araua ezartzeari ekin zioten, eta ondoren zuzendaritzak egoki iritzi zion kudeaketa sistema bat ezartzeari UNE-EN ISO14001:2004 arauaren arabera eskualde osoan; sistema horrek Eskualdeko Zuzendaritzaren eta horren OLU guztien ingurumen-kudeaketan etengabe hobetzea bermatzen du.

Kudeaketa Sistema ezarri eta finkatu ondoren, aldi berean Europako Ekogestioaren eta Eko-auditoriaren 761/2001 EMAS II araudiari egokitzea erabaki zen, zeren Eskualdearen Ingurumen-kudeaketan aurrerapena dela irizten baitzaio, baita herritarren komunikazioari eta partaidetza garrantzi handiagoa ematea ere.

Adierazpen honen abiapuntua, hain zuzen ere, herritarrei oro har edo interesa duten alderdiei ingurumenaren gaineko jokabiderako konpromisoak, helburuak eta eboluzioa ezagutarazteko borondatea da, betiere gardentasuna bilatu nahirik komunikazioan eta kudeaketan.

I.2 Zuzendaritzaren aurkezpena

Ingurumen-kudeaketa BiEren ekarpen aktiboa eta borondatezkoa da, lehian duen egoera eta balio erantsia hobetzeko.

Ingurumenari buruzko kontzeptu horretan, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko oreka berria lortu nahi duten jardunen, estrategien eta enpresako kudeaketa-sistemen multzoa biltzen da.

Aurkezpen hau Osakidetzaren Bilbo Eskualdeko (BiE) osasun zerbitzu publikoen erakundeak buruturiko jardueren eta konpromisoen gaineko dokumentu publiko batean sistematizatzea da, gehienbat 2007. urtean. Horri esker, gure ibilbidea erakutsi eta eginiko jarduerari buruzko ikuspegi orokorragoa eman dezakegu.

Gure eginkizunari datzeko Ingurumen-kudeaketa, eta osasun erakunde publikoa izatearekin dago justifikatuta eginkizun hori:

“Bilboko eta Alonsotegiko herritarrek osasunaren aldetik dituzten beharrak betetzea, osasuna sustatzeko, prebenitzeko, zaintzeko eta hobetzeko zerbitzuak emanaz. Hona hemen jardueraren printzipioak: unibertsaltasuna, berdintasuna,

elkartasuna, eraginkortasuna, kalitatea eta iraunkortasuna”.

Gainera, konpromiso hori gure Ikuspegiaren azaltzen dugu; izan ere, adierazpen horretan ezartzen dira etorkizuneko gure jardueraren egiteko parametro estrategikoak. Ondokoak dira parametro horiek ematen dituztenak: herritarren zahartze-prozesua, baliabideak gehiago erabiltzea dakarrena; laguntza-presioa eta herritarren igurikapeak handitzea; Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak bultzada estrategikoa ematea Kudeaketaren tresna berriei (EFQM/PROCESOS/ISO; informazioaren teknologia eskuratzea: ebidentzian oinarrituriko medikuntza/Osabide/ACG/ komunikazioa (liburutegi birtualak, Web, bezeroarentzako informazio-euskarriak...); beste erakunde batzuekiko harremanak sistematizatzea hala nola udalekin / auzokideen elkarteekin / Al- dundiarekin / unibertsitateekin / Kaltetuen elkarteekin, GKEekin, etab. Helburua gure zerbitzuak garatzea eta hobetzea da.

Ikuspegi

Osasun zerbitzurik onena ematen duen erakundea izateko helburua dugu, eta herritarrek, profesionalak, intereseko taldeak eta oro har gizarteak erakundetzat hartzea:

- Eskuragarria, giza talde profesional eta eraginkorrek.

OLU guztiak 8:00etatik 20:00etara irekitzen hasi ginen Osakidetzako OLko lehen eskualdea izan ginen, eta horrek hobekuntza dakarkio herritarrei. Gainera, “Zerbitzuen eskaintza hobetze”arekin, osasun zerbitzu berriak ezartzeko eta egon daudenak berritzeko posibilitatea aztertzen dugu.

- Arduratsua eta konprometitua iraunkortasunarekin.

Il-ldo horretan, Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren lehen memoria egin zen, 2006ri dagokiona. GRI gidaren (3. bertsioa) gomendioak jarraitu ziren memoria egiteko, eta A+ kalifikazioa lortu zuen AENORen baliozkotze- proban. Izan ere, estatuan kalifikazio hori lortu duen osasuneko lehen erakunde publikoa da.

- Pertsonen jardueren garapenean eta hobekuntzan parte hartzea bultzatzea.

Horretarako, hainbat foro eta estrategia egin ditugu hala nola talde fokalak edo gure OLUetako profesionalak ikus-onetsitako hobekuntzako taldeak abiaraztea, hain zuzen herritarren zerbitzuaren kalitatea hobetzen dutenak. Hala, Pertsonen Gogobetetasunaren Inkestan dauden adierazleak emaitzak hobetu ditzakegu.

- Filosofia horren barruan kokatzen da gure kudeaketa sistemaren garapena, eta horri esker, 2006an eremu horretako lorpenik handiena lortu zen, Euskalit-ek (Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioa) ematen duen zilarrezko Q kudeaketaren bikaintasun saria.

- Garrantzia ematen diogu gure jarduerak herritarrengan duen eraginari. Hori dela-eta, prozesu espezifikoa zehaztu dugu, “Intereseko taldeen ahotsa” izenekoak, non herritarren interesak defendatzen dituzten erakundeekin ditugun harreman guztiak biltzen baititugu. Izan ere, gure jarduerak gizarte erantzukizuneko jarduerak dira, osasunaren arlotik harago doazenak.



Adierazpen honetah osasunaren osagarriak diren ingurumen-alderdiak aztertuko ditugu, betiere gardentasun-irizpideekin jokatzuz eta jarduerak etengabe kontrolatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak ezarriz.

1.3 Bilbo eskualdea: BiE

Bilbo Eskualdeak 1989an (BiE) ekin zion lanari Osakidetzaaren barruan dagoen Bilboko Sektore gisa, INSALUDen aurreko egitura gaindituta. Bilboko ospitalez kanpoko osasun laguntza arduraduna zen (Oinarrizko laguntza, laguntza espezializatua eta osasun mentala), eta sei osasun aldetan banatutako erakunde-egitura bat du. Guztira, oinarrizko laguntzako eta laguntza espezializatuko zazpi anbulatorio eta bederatzi kontsultategi edo osasun zentro ditu.

Oinarrizko laguntza eta laguntza espezializatua 1996an banatu ondoren, 1997ra arte ematen ez zen laguntza espezializatua aipaturiko ospitalean (Basurtuko ospitalea) ezarri zen. Orduan, soilik oinarrizko laguntzako zerbitzuen erakunde bihurtu ginen, Osakidetzaaren zuzenbide pribatuko herri erakundearen barruan.




1.3.1 Erakundearen egitura.

Guztira 24 lan-toki ditugu, 23 osasun zentrotan banatuta dauden Oinarrizko Laguntzako 20 Unitatetan egituratuta. Hauxe da ordutegia: 8:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura, eta zapatuetan 9:00etatik 14:00etara. Haietako hirutan (Errekalde, Deustua eta Begoñako osasun etxeak) gainera Laguntza Jarraituko Tokiak ere badira. Bestalde, Bilboko Gran Via 62an Eskualdeko Zuzendaritzaren egoitza dago.




Eskualde osorako zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoa dugu. Laguntzako egitura gisa, zuzendaritzetan dauden profesionalaz gain, hauexek ditugu: Prebentzioko Oinarrizko Unitate bat, Eskolako Osasun Zerbitzua, 2 gizarte langile eta Bezeroaren Arretarako 4 Zerbitzu, eta azken horiek zentroetan daude (anbulatorioak) non Oinarrizko Laguntza eta Laguntza Espezializatua konpartitzen ditugun.



Zuzendari gerentea da Erakundearen arduradun nagusia, eta halakoa denez, gizarte, ekonomia eta ingurumeneko gure eremuarekin lotutako gai guztiak zuzentzen ditu, baina gainerako liderrei eskuordetu dizkie jardueren plangintza eta hedapena.

1.3.2 Ingurumen Kudeaketako oinarrizko erantzukizunak

Ingurumena Kudeatzeko Sistema BiEn ezartzeko, giza baliabideak eta erantzukizun zehatzak esleitu behar izan dira sistemak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, IKSren ondoko organigraman agertzen denez:




Gran Vía nº 62 2º 48011 - Bilbao
 Telefonoa: 94 400 73 00
 Faxa: 94 400 73 77
 e-maila: andres.villarpizarro@osakidetza.net
 Harremanetarako: Andrés Villar Pizarro

Bilbon eta Alonsotegin bizi diren herritar guztiei eskaintzen diegu zerbitzua, gure 20 OLUREn bidez emana, eta Laguntza Jarraituko zerbitzuarekin osatzen da halako moldez non herritarrek etengabe baitute osasun zerbitzua asteko 7 egunetako 24 orduetan:

OSASUN ZERBITZUEN ZORROA:	
1.	Oinarrizko prozedura diagnostikoak
2.	L. ehen Mailako Arretatik eskuragarri diren prozedura diagnostikoak
3.	Prozedura Terapeutikoak
4.	Prebentzioa, Osasunaren Sustapena, Familia- eta Komunitate-Atentzioa
5.	Informazioa, Zaintza Epidemiologikoa
6.	Arreta Berezia Arrisku Talde Bereziei: Haurrak, nerabeak, emakumeak, helduak, adinekoak, etxeko indarkeria, tratu txarrak adin-tarte guztietan, gaixo terminalai zainketa aringarriak
7.	Adimen-osasunari arreta
8.	Ahoko eta hortzetako osasunari arreta

Gure Prozesu-mapan identifikaturiko prozesuen bidez hedatzen da jarduera, eta horien artean dago ingurumen-kudeaketa. Jabea da helburuak lortzeko beharrezko ekintza guztiak egiteko arduraduna.



1.5 Olu-Ren Eta Eskualdeko Zuzendaritzaren Deskribapen Orokorra

Eskualdeko jarduera nagusia oinarritzko laguntzako unitateetan eta horien zentroetan egiten da. OLU erudian profil hauetako profesionalek egiten dute lan:

- Familia medikuntza
- Pediatria
- Erizaintza
- Administrazio atentzioa.

Hauexek ere izan daitezke:

- Odontologoa
- Emagina

Honako hauek dituzten lokalak behar dituzte zerbitzuak emateko:

Laguntza Arloa	Laguntza-kontsultak: fakul. eta eriz.
	Sendaketa-gela/Proba funtzionalak
	Talde-hezkuntzako gela
Publikoaren Arloa	Sarrera
	Itxaroteko gela
	Eskailerak eta igogailu (bidezkoa bada)
	Komunak.
Administrazio Arloa	Beroaren arretako erakusmahaia
	Telefono eta administrazioko arreta.
Zerbitzu orokorrak eta guztientzakoak	Biltegia
	Historia klinikoen artxiboa.
	Liburutegia / Egongela
	Pertsonalaren komunak eta aldagelak
	Zerbitzu-gelak: garbiketa, hondakinak, etab.

Kontsultako edo sendaketa-gelako oinarritzko tresnarekin batera, honako ekipoauek daude zentro batean:

- Elektrokardiografoa
- Autoklabea
- Holter
- Espirometroa
- Pulsioximetroa
- Desfibriladorea

Eskualdeko Zuzendaritzan, unitateak eta zentroak laguntzeko zerbitzua ematen da. Bertan dago zuzendaritza taldea eta laguntzako pertsonala: teknikariak, administrariak, etab.

LANPOSTU-ZERRENDIA URTEA	2006	2007
Familia eta kupo medikuak	207	208
Pediatria	37	40
Odontologia	9	9
Eud- emaginak	260	260
Erizain laguntzailea	32	31
Gizarte langileak	2	2
Goi-mailako titulatu ez sanitarioak	9	9
Erdi-mailako titulatu ez sanitarioak	1	1
Administrariak	19	18
Administrari laguntzaileak eta bezeroari arreta	124	123
Zeladoreak	54	52
Gidariak	11	11
Garbitzaileak eta mantenimendua	5	4
Zuzendari lanpostuak	5	5
GUZTIRA	775	773

I.6 Ingurumen-Kudeaketaren Sistemaren Norainokoa

BiEren OLU guztietan ematen den ingurumen-kudeaketa da sistema honen norainokoa, soilik Oinarrizko Laguntzako (Administrazio kudeaketa eta osasun laguntza) zerbitzuak emateari dagokionez, baita Eskualdeko Zuzendaritzan ematen dena ere.

Hauexek dira kokaguneak:

OINARRIZKO LAGUNTZAKO UNITATEAK (OLU)	ZENTROAK	Helbidea	OST kop.:	
			06/12/31	07/12/31
1.- BASURTU - ALTAMIRA	BASURTO	Jardines de Iparralde,1 - 48013	17.323	17.486
	ALTAMIRA	Altamira, 11 - 48013	4.701	4.565
2.-BEGOÑA	** BEGOÑA	Virgen de Begoña, 32 - 48006	13.511	13.647
3.-BOLUETA - SAGARMINAGA	SAGARMINAGA	Sagarminaga, 56 - 48004	14.058	14.064
4.- CASCO VIEJO	** CASCO VIEJO	Ronda, 6 - 48006	11848	12.039
5.- DEUSTU - ARANGOITI	* DEUSTO	Luis Power, 18 - 48014	23.189	23.372
	ARANGOITI	Camino Berri, 50 - 48014	5.059	5.059
6.- EL KARMELO	EL KARMELO	Plaza de Haro, 2 - 48004	15.552	15.446
7.-BOMBERO ETXANIZ	** ETXANIZ	Plaza Bombero Etxaniz, 1 - 48010	38.408	38.975
8.- GAZTELEKU	GAZTELEKU	Príncipe de Viana, 5 - 48007	24.803	24.706
9.- INDAUTXU	* INDAUTXU	Dr. Areilza, 12 - 48011	22.133	22.046
10.-JAVIER SAENZ DE BURUAGA	** J.S. BURUAGA	Henao, 7-9 - 48009	15.184	15.453
11.- LA MERCED	LA MERCED	Luís Iruarizaga, 1 - 48003	9.234	9.681
12.- LA PEÑA	LA PEÑA	Ibaialde s/n - 48003	10.832	10.902
13.- OTXARKOAGA	** OTXARKOAGA	Zizeruene, 1 - 48004	13.271	13.133
14.- ERREKALDE	* REKALDE	Ctra. Larrakitu, 2 - 48002	28.689	28.934
15.- SAN ADRIAN	SAN ADRIAN	Juan de Garay, 51-53 - 48003	14.048	14.929
16.- SAN INAZIO	SAN IGNACIO	Larrako torre, 9,- 48015	27.650	27.545
17.- SANTUTXU - SOLOKOETXE	* SANTUTXU	Sorkunde, 3 - 48006	24.575	24.750
18.- TXURDINAGA	TXURDINAGA	Txomin Garat, 16 - 48004	16.796	16.852
19.- ZORROTZA - ALONSOTEGI	ZORROZA	Zorroza-Castrejana 20-22 Trasera- 48013	13.024	12.982
	ALONSOTEGI	Camino de Erroteta, s/n - 48810	3.146	3.140
20. ZURBARAN	ZURBARAN	Avda. Zumalacarregui,99 - 48007	11.533	11.095
GUZTIRA	23		378.537	380.801
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	+1	Gran Vía, 62 - 48011		

* Anbulatorioetan dagoen osasun zentroa.

** Atentzio espezializatuko zerbitzuren bat duen osasun zentroa.

OHARRA: udal zentsuetako herritar bakoitzeko OST kopuru handiagoa gehienbat zenbait pertsonaren jokabideagatik da; izan ere, beste udalerrri batzuetan erroldatuta egon arren, bere medikuari eusten diote gure eskualdean.

2. Ingurumena kudeatzeko sistemaren deskribapena:

2.1 Ingurumenerako Politika

BiEren zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute erakunde osoan ezar dadin, eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak ezartzeko erreferentzia da.

Helburu horiek BiEren ildo estrategikoetan finkatzen dira, malguak eta berrikusgarriak dira eta ingurunearen eskakizunetara irekita daude. Gainera, ingurumenaren arloko unean uneko lehentasunak ezartzen dituzte.

Lehentasunak abiarazteko, honako hauek betetzea hitzartzen dute zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak:

- Politikaren esanahia jakinaraztea, pertsonal guztiak ulertu eta eraginkortasunez bete dezan.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat zehaztea eta abiaraztea, Ingurumenkudeaketaren Eskuliburuan bildua.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak ezarritako eskakizunak betetzera bideratzea eta bezeroen eta interesa duten alderdiak ingurumenaz jabea-raztea eta gogobetetasuna sustatzea.
- Ez-adostasunak gutxitzeko nahikoa baliabide esleitzea.
- Langile guztien informazioa eta partaidetza bermatzea gure jarduerak ingurumenean duen eraginaz jabetu daitezen, betiere kutsadura prebenitzeko eta baliabide naturalen aurrezpena sustatzeko guztiok dugun konpromisoa ahaztu barik; bereziki baliabide natural urriei erreparatuko diegu.
- Beharrezko aginpidea eskuordetzea prozesuen arduradunei, sistema arauaren arabera mantentzen dela ziurtatzeko, eta sistemaren funtzionamenduaren berri eman beharko zaio nahitaez zuzendari gerenteari etengabeko hobekuntza gisa.
- Ingurumenerako politika interesa duten alderdien eskura jartzea.
- Indarreko arauak eta legeria betetzen direla bermatzea, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.

Ingurumena kudeatzeko taldeak ezarritako politika dokumentatu, abiarazi eta egunean izango du, gure jardueren garapenari egokitu ahal izateko.

BiEko profesional guztion erantzukizuna da ingurumenerako politika hau nahitaez betetzea


Bilbon, 2007ko urriaren 22an
JESUS LARRAÑAGA GARITANO
BILBO ESKUADKO ZUZENDARI GERENTEAK

Ingurumenari buruzko adierazpen honen informazioa bermatzeko, kartelak jarriko dira zentro guztietan, pertsonalaren, herritarren eta kontraten eskura.



2.2 Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren Aurkezpena:

BiEk IKS ezarri du UNE-EN ISO 14001:2004 arauaren arauetan eta Europako 761/2001(EMAS) oinarrituta. Bertan xedatu dira Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburua eta ingurumen-alderdiak Etengabeko Hobekuntzaren zikloan behar bezala identifikatzen eta kudeatzen direla bermatzeko beharrezko prozedura eta jarraibide teknikoak, ondoren agertzen denez.



2.2.1 Ingurumenerako Politika

BiEk jakin badaki oso garrantzitsua dela ingurumena eta baliabideak zaintzea eta errespetatzea, eta horretarako, ingurumenerako politika bat onetsi du. Politika horrek, gure zerbitzuak behar dituzten eskualdeko herritarrak ardatz hartuta, hainbat konpromiso ezarri du eta horien gainean zehaztu du IKS. Konpromiso horiek legeak betetzeko dira: legeko eskakizun aplikagarriak, ingurumenari buruzko beste eskakizun batzuk eta kutsaduraren prebentzioa eta sistemaren etengabeko hobekuntza. Erakundeak, halaber, politika hori eguneratuta izatea eta interesa dutenen eskura jartzea hitzartzen du.

2.2.2 Plangintza

Ingurumen Alderkiak

Ingurumen-alderdiak identifikatzeko hasierako urrats gisa, BiEk hasierako diagnostikoa edo ingurumenari buruzko ebaluazioa egin du. Identifikaturiko alderdi horiek abiapuntu hartuta, sistematika bat ezarri zen OLU kudeatzearen ondoriozko jardueren eta zerbitzuen emaitzako ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeko eta alderdi horietatik ingurumen-eragina izan lezaketenak zein diren jakiteko.

Zuzeneko ingurumen-alderdiak ohiko egoeran, ezohiko egoeran eta larrialdian identifikatzen eta ebaluatzen dira, baita zeharkako ingurumen-alderdiak ere.

Lege Eskakizunak

BiEk metodologia bat du lege eta araudi eskakizunak eta ingurumenaren kudeaketaren arloan aplikatu beharreko beste edozein eskakizun edo konpromiso identifikatzeko eta ebaluatzeko; hala, horiek betetzen direla ziurtatzen du.

Xedeak eta Helburuak

BiEk ingurumenerako politikarekin eta ingurumen-alderdien ebaluazioarekin bat etorritik ezartzen dira helburuak. Hauexek izan behar dute xedeak eta helburuak:

- Ingurumen-politikarekin bat etorri behar dute
- Ahal dela zenbagarriak izan behar dute beti
- Eskatzekoak eta lortzeko modukoak, ingurumen-kudeaketa etengabe hobetzeko prozesuan aurrera egiteko.

Ingurumen-programa

BiEk ingurumenaren arloko ekintza-planak (ingurumen-programak) egiten ditu ingurumenari buruzko helburuak betetzeko, eta helburu bakoitzari xede espezifikoak, ekintza zehatzak eta arduradunak, epeak eta baliabideak esleitzen dizkio.

Aldian-aldean berrikusten dira programak, planteaturiko helburuen egoera egiaztatzeko eta, planifikatu denari dagokionez desbideraketarik badago, zuzenketa-ekintzak ezartzeko.

2.2.3 Ezarpena eta Eragiketa

Baliabideak, funtzioak, erantzukizuna eta aginpidea

Zuzendaritzak ziurtatu egin behar du funtsezko giza baliabideak eta baliabide finantzarioak eta teknologikoak dituela. 1.3. puntuak komentatu da BiEren organigrama

Zuzendari gerenteak du gehieneko aginpidea eta erantzukizuna BiEn garaturiko politikak planifikatzeko, erabakitzeko eta ebaluatzeko.

Trebakuntza, gaitasuna eta jabearaztea

BiEren IKSek erakundeko pertsonalaren eta hornitzaileen trebakuntza jotzen du langileen gaitasun profesional egokia bermatzeko tresnatzat, ingurumenean izan badezakete eragina haien lanean. Horretarako, ikastaroak, trebakuntzako jardunaldiak edo bilera espezifikoak eta langileak jabearazteko ekintzak egiten dira eta, hartara, “Begirada Batez” informazio-buletina erabiltzen da. Gainera, lana behar bezala betetzeko beharrezko eskakizunak edo jarraibideak ematen zaizkio bakoitzari.

Komunikazioa

Pertsonalarekiko barne-komunikazioak norabide anitz ditu, eta OLUen kudeaketan parte hartzen duten pertsona guztiek politika betetzeko eta sistema etengabe hotzeko ekarpenak egitea bermatzen da: barne-buletinak, posta elektronikoa, Internet, bilerak, etab.

Bestalde, IKSk kanpoko alderdi interesatuekiko (herritarrak, administrazioaren beste erakunde batzuk, elkarteak, hornitzailea, etab) komunikazio ona ziurtatzen duten bideak ezartzen ditu.

Dokumentazioaren kontrola

IKSk hainbat dokumentu dakartza, ezarpen eraginkorra eta erakundeak ingurumenaren aldetik duen eginkizun egokia errazten dutenak. Dokumentazio hori eraginkortasunez egin, berrikusi, onetsi, aldatu, banatu eta artxibatu egiten da eta, horretarako, horren gaineko kontrola ezartzen da.

Eragiketen kontrola

BiEk ingurumen-alderdiekin lotuta dauden edo politika, helburuak eta xedeak betetzean ondorioak izan ditzaketen eragiketak identifikatzen eta planifikatzen ditu, eta horretarako, prozedura eta jarraibide tekniko dokumentatuak, banatuak edo pertsonalaren esku jarriak ezartzen, abiarazten eta mantentzen ditu, horiek egon ezik ingurumenari buruzko politikan, helburuetan eta xedeetan gerta daitezkeen desbideraketak kontrolatzeko.

Larrialdiei erantzuna ematea

OLUetan larrialdiak gerta daitezke eta ingurumenerako arriskutsuak izan daitezke. IKSk egoera horiek eta haien ondorioz gerta daitezkeen ingurumen-alderdiak biltzen ditu eta jarduteko protokoloak eta prebentzioko neurriak aurreikusten ditu larrialdi horien balizko eraginak murrizteko. Gainera, larrialdietako neurriak aldian-aldian baliozkotzen dira simulakroen bidez.

2.2.4 Egiaztapena

Legea betetzeari buruzko jarraipena, neurketa eta ebaluazioa

Erakundeak ingurumenaren aldetik duen ebaluazioaren, sistemaren eraginkortasunaren eta ingurumenaren inguruko helburuak eta xedeak betetzearen jarraipena egiteko, BiEn eginiko eragiketen eta jardueren ezaugarri gakoak kontrolatzen dira horiei buruzko informazioa eta datuak aldian-aldian bilduta.

Gainera, erabilitako ekipoak ikuspenetan behar bezala kalibratuta daudela ziurtatzen da.

Horiek behar bezala betetzeko konpromisoarekin bat etorritik, BiEk aldian-aldian ebaluatzen du ingurumenaren arloan aplikatu beharreko legeriaren eta araudiaren betetze-maila, baita borondatez hitzartuko dituen beste eskakizun guztiak betetzen direla ere.

Ez-adostasuna, zuzenketa-ekintza eta prebentzio-ekintza

Sorturiko ez-adostasunak kontrolatzen ditu sistemak, eta horiei erantzun bat

emateko sistematika ezartzen du zuzenketa-ekintzen bidez. Balizko ez-adostasunak ikusten direnean, horiek ez gertatzeko prebentzio-ekintzak ere zehazten dira.

Erregistroak

IKS behar bezala ziurtatzen duten eta sistema betetzeari buruzko froga ematen duten erregistroak egiten eta mantentzen dira.

IKSren auditoria

Urtero egiten da IKSren barne-auditoria, erakundearen eraginkortasuna, kudeaketa sistema eta ingurumena babesteko bideraturiko prozedurak ebaluatzeko, baita pertsonalaren partaidetza- eta konpromiso-maila ere.

2.2.5 Zuzendaritzaren Berrikuspena

Zuzendaritzak aldian-aldian berrikusten du IKS aipaturiko arauak eta araudiei egokitzen zaiela egiaztatzeko. Berrikuspen horretan, baliabide eskuragarriak (azpiegitura, materialak, giza baliabideak, etab.) ingurumenaren inguruko xedeei eta helburuei egokitzen zaizkien aztertuko da kudeaketa-programen berrikuspenaren bidez. Era berean sistemak ematen dituen urteko datuak ebaluatzen dira. IKSen aldaketak egiteko posibilitatea hartzen da aintzat eta ikusitako hobekuntzako aukerak ebaluatzen dira.



3. Ingurumen alderkiak

BiEren kudeaketaren ingurumen-alderdiak OLUetan eginiko jardueren eta zerbitzuen ondoriozkoak dira, ingurumenarekiko elkarreagina izan dezaketenak. Erakundeak alderdi horiek identifikatu ditu, haren eboluzioa kontrolatzeko eta ingurumen-politika egiaztatzeko.

Hauexek izan daitezke:

- Zuzenekoak.- Jardueren ondorioz sortutakoak dira eta kudeaketaren kontrola dago horien gainean. Honelaxe identifika daitezke:
 - Ohiko egoera.- BiEren ohiko jarduera.
 - Ezohiko egoera.- Uneko jarduerak edo lanak.
 - Larrialdiak.- Gerta daitezkeen egoerak eta kasuan kasuko balizko alderdiak aurreikusi behar dira.
- Zeharkakoak.- Jardueren ondorioz sortzen direnak dira, baina BiEk ez du kudeaketako kontrol osoa horien gainean.

3.1 Ingurumen-Alderdiak Identifikatzea

IKSren arduradunak zuzeneko (BiEk kudeaketaren zuzeneko kontrola du) eta zeharkako (horien gainean ez dago zuzeneko kontrolik, baina eragin positiboa izatea espero da) ingurumen-alderdiak identifikatzen dira. OLUetan eginiko jardueren eta zerbitzuen azterketa du abiapuntua identifikazio horrek.

Erakundearen jarduerak abiapuntutzat hartuta, ingurumen-alderdiak identifikatzeko, erakundearen funtzionamenduaren ohiko eta ezohiko egoerak eta balizko larrialdiak hartu dira kontuan. Ildo horretan, BiEren zerbitzuen kartera eta prozesuak hartzen dira kontuan (1.4. atala). Hauexek dira erakundearen identifikaturiko ingurumen-alderdiak:

Zuzeneko alderdiak ohiko egoeran:

	Ingurumen-alderdia
Kontsumoak	Orriak
	Tonerra (inprimagailua/fotokopiagailua)
	Pilak eta bateriak
	Inprimagailuko kartutxoak
	Medikamentuak
	Aposituak
	Tirak
	Orratzak, xiringak eta hodiak
	Bendak eta gazak
	Beste material sanitario batzuk
	Beste material batzuk
	Garbiketako produktu arriskutsuak
	Sareko ura
	Argindarra
	Galdarako gasa
	Automozioiko gasolioa
Hondakinak	RAEE (Inprimagailuak, ordenagailuak, etab...)
	Pilak eta bateriak
	Erradiografiak
	Ebakitzaileak eta zorrotzak
	Lanpara fluoreszenteak
	Zitostatikoak
	Iraungitako medikamentuak
	Tinta eta toner kartutxoak
	Papera eta kartoia
Isurketak	Hondakin higienikoak (komunak)
	Berezi gabeko hiriko hondakinak
	Ur sanitarioak
	Bulegoetako zarata
Zarata	Galdarako igorpenak
	Automozioiko igorpenak

Zuzeneko alderdiak ezohiko egoeran:

- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak
- Bolumen handiko hondakinak (altzariak...)

Zuzeneko alderdiak larrialdietan:

Igorpenak atmosferara	Larrialdia: leherketa
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: leherketa
Hondakin inerteak	Larrialdia: leherketa
Hondakin inerteak	Larrialdia: sua
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: sua
Sua itzaltzearen ondoriozko isurketak	Larrialdia: sua
Igorpenak atmosferara	Larrialdia: sua
Hondakin ez arriskutsuak	Larrialdia: uholdea
Legionella kutsadura	Larrialdia: legionellosia
Igorpenak atmosferara	Larrialdia: gas hoztailearen ihesa
Hondakin arriskutsuak	Larrialdia: substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea
Isurketak	Larrialdia: substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea

Zeharkako alderdiak:

- Hornitzaileek ingurumenaren aldetik duten jokabidea (mantentzea, garbiketa,...)
- Hornitzaileek ingurumenaren aldetik duten jokabidea – kanpoko analisien laborategia
- Oinarrizko atentziokoa ez den pertsonalak ingurumenaren aldetik duen jokabidea
- Erabiltzaileek ingurumenaren aldetik duten jokabidea

3.2 Ebaluazio-irizpideak

OLUen kudeaketaren ingurumen-alderdiak identifikatu ondoren, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu (zuzenekoak zein zeharkakoak), ingurumenean eragin garrantzitsua dutenak zein diren jakiteko

eta horien kontrola hobetzeko.

Ohiko baldintzetako eta ezohiko baldintzetako zuzeneko alderdien eta zeharkako alderdien ebaluazioa eginiko jardueretan bildutako informazioan dago oinarrituta, eta bi irizpide hartzen ditu kontuan (edo irizpide bat zenbait kasutan):

- a) alderdiaren **magnitudea** (alderdia zenbatzea: kopurua, instalazioen funtzio-namendu orduak, etab.).
- b) alderdiaren **izaera** (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).

Ebaluazio-irizpideetarako, a) (Magnitudea) eta b) (Izaera), balorazio-eskala bat ezarri da (gutxienez 1, eta gehienez 3).

Faktore orokorraren balioa lortzeko, magnitudea bider izaera egingo dugu. Ebaluazioaren balioa, aurreko atalaren arabera egingo da, gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiago bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartzen da eta lehenetsi egiten da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan. Larrialdietako alderdien kasuan faktore orokorraren balioa lortzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

- Larrialdia geratzeko probabilitatea (larrialdia gertatu den kopurua abiapuntu hartuta).
- Larrialdi bakoitzaren balizko eraginaren larritasuna.

Magnitudean eta Izaeran bezala, balorazio-eskala bakarra ezarri da (gutxienez 1, gehienez 3).

Faktore orokorraren balioa lortzeko, probabilitatea bider larritasuna egingo dugu; ebaluazioaren balioa gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiago bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartzen da eta lehenetsi egiten da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

FAKTORE OROKORRA (M x I) edo (P x L)	GARRANTZI MAILA
F.G. < 4	Ez da garrantzitsua
F.G. ≥ 4	Garrantzitsua da

3.3 Ingurumen-Alderdi Garrantzitsuak

Ondoko taulan, 2007an identifikaturiko ingurumen-alderdi garrantzitsuak agertzen dira, 2006ko datuekin, betiere aurreko atalean azaldutako ebaluazioaren metodologiarekin eta horiekin lotutako eraginekin bat etorriz. 2006.

urtean, eskualderako ingurumen-alderdien guztizko datuak bildu zirenez gero, alderdien lehen ebaluazioa, oro har, erakunde guztirako egin zen. 2008an, BiE betetzen ari den etengabeko hobekuntzako prozesuaren ondorioz, datu-hartze hori hobetu egin da eta osasun zentro bakoitzaren datu espezifikoak ditugu dagoeneko. Hortaz, zentro bakoitzeko alderdi garrantzitsu espezifikoak bilduko dira ingurumenari buruzko etorkizuneko adierazpenetan.

BiE-REN EZAUGARRI GARRANTZITSUAK 2007 (2006ko datuak)		HORREKIN LOTUTA HELBURUA
DESKRIBAPENA	ERAGINA	
Paperaren kontsumoa	Baliabide naturalak murriztea. Produktu hauek fabrikatzeko prozesuetako hondakinak, igorpenak eta hondakin-uren isurketak murriztea lortu da.	OLUetako paperaren kontsumoa %5 murriztea
Benden eta gazen kontsumoa		-
Inprimagailuko tonerraren kontsumoa / fotokopiagailua / druma		-
Pilen eta baterien kontsumoa		-
Medikamentuen kontsumoa		-
Garbiketako produktu arris-kutsuen kontsumoa		-
Uraren kontsumoa	Baliabide naturalak murriztea. Igorpenak atmosferara.	-
Argindarra		Argindarraren kontsumoa %0,3 murriztea
Gasolioaren kontsumoa		-
RAEE (Inprimagailuak, ordenagailuak, etab...)	Lurra erabiltzea, degradatzea eta kutsatzea.	BiEren hondakinen bereizketa eta kudeaketa hobetzea (zabor orokorra %10 murriztea)
Hondakin zitostatikoak		BiEren hondakinen bereizketa eta kudeaketa hobetzea (zabor orokorra %10 murriztea)
Iraungitako medikamentuen hondakinak		BiEren hondakinen bereizketa eta kudeaketa hobetzea (zabor orokorra %10 murriztea)
Hondakin higienikoak (WC)		BiEren hondakinen bereizketa eta kudeaketa hobetzea (zabor orokorra %10 murriztea)

BiE-REN EZAUGARRI GARRANTZITSUAK 2007		HORREKIN LOTUTAKO HELBURUA
DESKRIBAPENA	DESKRIBAPENA	
Ur sanitarioen isurketa	Urak eta lurrak kutsatzea. Ekosistema akuatikoen biodibertsitatea galtzea.	-
Bulegoetako zarata	Ingurumen-eragina	-

Baldin eta ingurumen-alderdi garrantzitsuen izaera dela-eta edota erakundearen baliabide mugatuak direla-eta ez badaude Ekintza-planaren Helburuekin lotuta, alderdi horietan jarduten da Eragiketen Kontroletik, eta BiEren ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten da.

4. Xedeak eta Helburuak. Ingurumen Kudeaketako Programak (Ekintza-Planak)

1.3. eta 1.4. ataletan aipatu denez, BiEn 24 zentro daude Bilbo (23) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, hasieran eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatu dira gehienbat; horretaz jabetuta egon behar dugu. Ingurumen-kudeaketa epe ertainerako edo epe luzerako proiektua dela kontuan izanik, datozen urteetan zentro horien arteko desberdintasunak handitu egingo direla uste dugu.

2007. urtean, aurreikusitako ekintzak abiarazi dira prozesua etengabe hobetzeko eta urtearen hasieran planteaturiko helburuak betetzeko, eta ekintza-planen emaitzak eta itxiera aztertu dira. Jarraian, 2007rako planteaturiko adierazleak betetzeari buruzko ebaluazioaren emaitza emango dugu.

INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/EKINTZAK	BURUTU DEN TOKIA	HELBURUAREN BETETZE-MAILA	
	DEFINIZIOA	2006	2007				
BIEren hondaki- nen bereizketa eta kudeaketa hobetzea (zabor orokorra %10 murriztea). GARRANTZITSUA	Bereizi gabeko hiriko hondakinak erabilt- zaileko	0,035 kg	0,0250 kg	Bildu beharreko gutxieneko hondakin motak erabakitzea.	24 zentro	100% (%21,9 mu- rriztea) 2006: 94.837.8 Kg 2007:74.061.32 Kg	Helburu honen bidez, lurraren erabilera, narriadura eta kutsadura murriztea lortu da. Bereizitako hondakinek ingurumen-eragin txikia dute (enerigaren kontsumoa, baliabideen kontsumoa, lurraren narriadura,...) bereizitakoek bano. Hortaz, funtsezkoa da hondakin horiek murriztea.
				Erabili beharreko edukiontziak zehaztea eta edukiontziak erostea.	24 zentro		
				Edukiontzien erabilerari buruzko jarraibi- deak egitea.	24 zentro		
				BIEk arau orokorrak bidaltzea hondakinak biltzeko tokiak jartzea erabakitze (kopurua eta kokapena)	24 zentro		
				Edukiontzien kokapena erabakitzea eta edukiontziak jartzea.	24 zentro		
				Jarraitu beharreko arauak jakinaraztea zentroko pertsonalari.	24 zentro		
BIEen argindarraren kontsumoa %0,3 murriztea GARRANTZITSUA	Argindarraren kontsu- moa, kwh erabilt- zaileko	1,0501 kwh erabilt- zaileko	0,8573 kwh erabilt- zaileko	Luminariak aldatzea (aurretiazko azterlana).	24 zentro	100% (Reducción de un 10.63%) 2006:284.2870 kwh 2007:254.0570 kwh	Helburu honen bidez, arginda- rra sortzeko baliabide naturalak murriztea lortu da, eta gainera, atmosferaarako igorpenak murriztu dira eta negutegi-efektua gutxitzeko lagungarria izan da gure lana.
				Detektoreak edota tenporizadoreak jartzea komunetan eta aldageletan (aurretiazko azterlana).	7 zentro		
				Tenporizadoreak jartzea erradiadore ele- ktrikoetan.	7 zentro		
				Zirkuituak bereizteko eta automatismoak eta erlojuak jartzeko irizpideak sartzeko hurrengo instalazioetan.	7 zentro		
%5 murriztea OLUetako paperaren kontsumoa GARRANTZITSUA	Paperaren kontsumoa erabiltzaileko	0,0098 kg erabilt- zaileko	0,0066 kg/era- biltzaile	Bilbo Eskualdeak jarraibideak bidaltzea fotokopiagailuak eta inprimagailuak erabilt- zeko posibilitateen berri emateko.	Eskualdeko administra- zioa	2007an: 19.551.48 kg	Helburu honen bidez, baliabide naturalak, lurraren narriadura eta, monolaborantza ugartzearen ondo- rioz, biodibertsitatea murriztea lortu da. Gainera, energia kontsumoa eta paperaren produzioaren ondoriozko ur-kutsadura murrizteko lagungarria izan da gure lana.
				OLUek jarraibideak ezagutaraztea. Espezi- fikoagoak egitea OLU bakoitzeko ekipo eta baldintza espezifikoetarako.	Zentro bakoitza		
				2 aldeetatik inprimatzeko edo fotokopiatze- ko ezaugarria ezartzea urteko inbertsioen planetan.	Hurrengo ekitaldirako atzeratu da		

5. Ingurumenaren Gaiako Jokabidea


5.1 Ingurumenaren Kudeaketa

OLUek ingurumenaren aldetik duten jokabidearen jarraipena egiteko, BiEren ingurumen-alderdi nagusiekin lotutako zenbait jarraipen-adierazle ezarri dira. Jarraian, 2006ko datuekin alderatuta 2007an izan ziren alderdi garrantzitsuekin lotutako adierazleak agertuko dira.

Kontsumoak


Uraren kontsumoa

2007. urtean, ekintza espezifikoak burutu ez badira ere, nabarmentzekoa da lorturiko murrizpena, gure profesionalak jabetuago baitaude baliabideen erabileraz; izan ere, 21.839 m³ izan ziren 2006an eta 2007an, berriz, 19.895m³. Ur Partzuergoak emandako fakturretatik lortu dira datuak. Adierazlea kontuan hartuta (m³ erabiltzaileko), ondoko grafikoa ikusten dena dugu emaitza:




Argindarraren kontsumoa

BiEren zentroetako eta eskualdeko zuzendaritzako bulegoetako argindarraren guztizko kontsumoa txikiagoa izan da: 2006an 2.842.870 Kwh izan ziren eta 2007an, berriz, 2.540.570 Kwh, hots, %10,63 egin du behera erabiltzaileen kopuruak. Ildo horretan, kausa-ondorioa identifikazioa ezin ezar badaiteke ere, gure profesionalen jabeazte-maila handitzen ari dela esan dezakegu; horretarako, ingurumenaren arloko jardun onerako jarraibideak jakinarazi dira. Aldi berean, kontsumoa murrizteko egiturako ekintzak burutu dira hala nola presentziatzko sentsoreak jartzea jende gutxi dabilen tokietan (pertsonalaren aldagelak, biltegia, etab.) Ekoscan proiektuan parte hartzen duten zentroetan. Ezarri diren beste neurri batzuk luminariak argindarraren kontsumo txikiko beste batzuekin aldatzea, ordenagailuak aldatzea, etab. izan dira. Hornitzaileak emandako fakturretatik lortu dira datuak. Honako grafiko hau dugu kwh/erabiltzaileko adierazlean:




Automozioko gasolioaren kontsumoa

2007. urtean, erakundearen ibilgailuen gasolioaren kontsumoa murriztea lortu da. Hala gertatu da BiEko pertsonalak erantzukizun handiagoaz jokatu duelako, gero eta jabetuago baitago ingurumenarekin. Horrela, 2006an 8.400 litro kontsumitu dira eta 2007an, berriz, 7.161 litro.



Galderetako gasolioaren kontsumoa


2007an, %14 baino gehiago handitu da galderetako gasolioaren kontsumoa erabiltzaile bakoitzeko; izan ere, 2006an 8.427 m³ kontsumitu ziren eta 2007an, berriz, 10.590 m³, beharbada negu batetik bestera klimaren aldetik dagoen desberdintasuna dela-eta.



Paperaren kontsumoa

2007. urtean, paperaren kontsumoa %25,98 murriztea lortu da erabiltzaileko, eta 2006an 26.416,410 kg kontsumitu dira eta 2007an, berriz, 19.551,480 kg. Helburu hori Ekintza Planaren arabera buruturiko ekintzei esker lortu da. BiEren hornidura sailak lorturiko datuak dira.

Paper kg/erabiltzailearen adierazleari buruzko grafikoa agertuko da.





Paperaren kontsumoa murriztu ez ezik, paperaren eta kartoiaren birziklatzea ere erraztu da, horiek bereizita biltzeko edukiontzia jarri direlako.




Benden eta gazen kontsumoa / Medikamentuen kontsumoa

2007an, “garrantzitsu”tzat jo ziren zenbait material sanitarioren kontsumoa murriztea lortu da. Benden eta gazen kontsumoaren (9.183,97 kg ziren 2006an eta 8.545,627 kg 2007an) eta medikamentuen (67.459,97 kg 2006an eta 57.120,798 kg 2007an) kasua da. BiEk jakin badaki kontsumo horien gainean jarduteko duen marjina txikia, erakundearen jarduera sanitarioak berak sortutakoak baitira.




Tonerraren kontsumoa

2007. urtean, %30 baino gehiago igo da tonerraren kontsumoa erabiltzaileko; izan ere, 2006an 1.035,216 kg-koa izan zen eta 2007an, berriz, 1.482,936 kg-koa (tonerraren kontsumoaren adierazlea, kg/erabiltzailea). Hala gerta daiteke ekipo informatikoak aldatu direlako eta inprimagailu gehiago jarri delako lanpostuetan.



Pilen kontsumoa

Tonerren kasuan ez bezala, nabarmen jaitsi da BiEren zentroetako pilen eta baterien kontsumoa erabiltzaileko; izan ere, 2006an 409.521 kg-ko kontsumoa izan zen eta 2007an, berriz, 258,888 kg-koa (pilen kontsumoaren adierazlea, kg erabiltzaileko). Berriz kargatzeko pilen erabiltzeaz jabearazi nahi diren langileak.



Garbiketako produktu arriskutsuen kontsumoa

2006an, ez zen kontrolatzen produktu horietan kontsumituriko kantitatea. Hori dela-eta, erakundearen ezaugarri garrantzitsu gisa ebaluatu zen. Kontrata batek sortutako ezaugarria denez gero, kontrol mugatua dago horren gainean. Eginkizun horretarako kontratatutako enpresak, ordea, Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat du, egiaztatuta dagoena. Horregatik, ingurumenaren kudeaketa etengabe hotzeko prozesuan murgilduta dago.


Hondakinak

RAEE

2006an, ez zen kontrolatzen hondakin mota horren kantitatea; hori dela-eta, erakundearen ezaugarri garrantzitsutzat hartzen da. 2007an hondakin horiek kontrolatu dira, eta guztira 953 kg sortu dira eta baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatu dira. Hala ere, ezaugarri horren eboluzioa ezin erakutsi daiteke denboran harik eta ekitaldi gehiagoko datuak izan arte.


Hondakin Zitostatikoak

Hondakin zitostatikoak, material sanitarioen kontsumoekin gertatzen den bezala, erabiltzaileen behar sanitarioen arabera sortzen dira. 2007. urtean, gora egin zuen nabarmen hondakin horien kopuruak; izan ere, 2006an 1.596 kg bildu ziren eta 2007an, berriz, 2.564,8 kg. Hala gertatu da lehenago aipaturiko ospitaleko tratamenduak osasun zentroetara bideratu direlako. Igoera hori ez da nahitaez negatiboa, ordea, kontuan hartzen badugu BiEren zentroek kendutako hondakin zitostatikoak baimendutako kudeatzaile baten bidez behar bezala kudeatzen direla.




Iraungitako medikamentuen hondakinak

BiEk kendutako medikamentu iraungiak behar bezala kudeatzen dira baimendutako agente baten bidez. 2007. urtean, hobekuntzarako neurri gisa, puntu berdeak jarri ziren zentro guztietan, erabiltzaileek eurek etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak biltzeko. Neurri horren helburua horrelako hondakin arriskutsuen kudeaketa egokia bermatzea da; izan ere, askotan zaborretan uzten dira herritarrek badakitelako zer diren. Gora egin du erabiltzaileko iraungitako medikamentuen kopuruak: 799 kg 2006. urtean, eta 2007an, berriz, 1.307,76 kg (iraungitako medikamentuen adierazlea, kg erabiltzaileko); horren ondorioz, zentroetan jarritako puntu berdeen erabilera egokia da eta ez da ezaugarri txartzat hartzen.



Hondakin higienikoak

Hondakin higienikoak osasun zentroetako komunitan sortzen direnez gero, erakundeak alde horretatik jarduteko marjina txikia du. Hala eta guztiz ere, hondakinak kontrolatzen dira eta horretarako baimendutako agente baten bidez kudeatzen dira. 2007. urtean, behera egin zuen erabiltzeko bildutako hondakinen kopuruak aurreko ekitaldiarekiko (2006an 1.841 kg ziren eta 2007an, berriz, 1.500,2 kg).



Vertido de aguas sanitarias

Kontsumituriko ur-kantitatearen berdina da (ikusi ur-kontsumoa)

Zarata

BiEk buruturiko jardueretan zaratarik ez dela sortzen irizten zaio. Horregatik, aurreko ekitaldietan ez da kanpoko zarataren neurketarik egin; hori dela-eta, erakundearen ezaugarri garrantzitsu gisa ebaluatu dira. Hori dela-eta, 2008an dagoeneko neurketak egin dira.

Adierazleen zenbait ondorio orokor, erakundeak OLUen kudeaketan ingurumenaren aldetik duen jokabideari buruzkoak.

BiEk uste du ezen, IKS berriki ezarri bada ere, adierazleen emaitzako ikusita eboluzio positiboa ikusten dela erakundearen ingurumen-alderdietan, eta ahaleginak egiten jarraituko dugu etengabe hobetzeki begira.

5.2. Ingurumenari buruzko legeriaren betetze-maila

Erakundeak ingurumeneko baimenak ditu, erakunde eskudunak aplikatu edo salbuetsi beharrekoak, eta onespeneraren zain dago Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Plana eta hondakin arriskutsuen produktore txikien erregistroan izena emateko.

Bestalde, BiEk ez du jaso zigorrik ingurumenari buruzko legeria urratzeagatik.

6. Ingurumenari Buruzko Bestelako Informazio Interesgarria

6.1 Erakundearen beste eremu batzuek ingurumenaren gainean duten jokabidea

BiEk konpromiso irmoa du gizarte eta ingurumeneko garapen iraunkorreko proiektuez jabearaztearekin eta horiek abiaraztearekin, eta erakundearen beste eremu batzuetan lan egiten du, pertsonalarekin zein oro har herritarrekin. Horietako zenbait jarraian deskribatuko dira:

- BiEko ingurumen-kudeatzaileak trebatzeko ikastaroak
- Kontratetako pertsonalarentzako trebakuntza-ikastaroak (garbiketako enpresa).
- Informazioko buletin elektronikoak profesionalentzat.
- Eskualdeko intraneteko iradokizunen helbidea, erreferentea BiEko eta Osakidetzako gainerako erakundeetako pertsonalarentzat.
- Hondakinen kudeaketarekin lotutako informazio orokorreko kartelak egitea.

- Zentro guztietako sarreretan, identifikazio-kartelekin seinaleztatuak, puntu berdeak daude. Erradiografiak, pilak eta medikamentuak biltzeko eta bereizteko edukiontzi bereziak dituzte. Zentro bakoitzeko hallean daude kokatuta, eta Ingurumen-kudeaketako trakzio-ibilgailu gisa jarduten dute gure profesionalentzat eta herritarrentzat oro har. Puntu berde horiek beste toki batzuekin osatzen da, eta toki horietan papera, tonerra eta beste hondakin batzuk bereizten dira. Hala, hondakinak gehitzea eta ondoren tratatzea edo birziklatzea (bidezkoa bada) sustatzen da.
- BiEk Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruz duen azken memoria, kanpoko erakunde batek eginga eta egiaztatua, 2006. urtekoa da, eta A+ sailkapena lortu da.

Puntu Berdeak



6.2. Herritarrentzako Komunikazioa Eta Informazioa

BiEn uste dugu ingurumenari buruzko informazioa funtsezkoa dela herritarren jokabidea hobetzeko. Hori dela-eta, hainbat komunikabide bereiz ditzakegu:

- Erabiltzaileen eskura jartzea bezeroaren arretarako gunetan hondakinen kudeaketarekin lotutako informazio orokorreko triptikoak eta beste kartel batzuk (Puntu berdeak).
- Informazioa Begirada Batez 0 zk. (Informazio-buletin orokorra)
- Iradokizun-ontzia eskualdeko zentro guztietan.
- Bilerak auzotarren elkarrekin.

6.3. Hornitzaileek Ingurumenaren Gainean Duten Jokabidea

Erakundearen hornitzaile eta azpikontrata guztiak ebaluatu egiten dira ingurumenaren aldetik duten jokabideari dagokionez galdetegi baten bidez. Eskaintzak baloratzera, ingurumenaren gaineko alderdi hauek hartzen dira kontuan:

- Hondakinak kudeatzea
- Material biodegradagarriak erabiltzea
- Energia eraginkortasunez erabiltzea
- IKS ezartzea

6.4. Ingurumen-kudeaketako inbertsioak

2006ko azken hiru hilekoan, zazpi zentrotako erabilera mugatuko zonaldeetan argiztapen-sarearen beharrari buruzko azterlan bat egin zen: San Inazio, Bombero Etxaniz, Zazpi Kaleak, La Peña, Santutxu, Sagarmínaga, San Adrian. Horren ondorio gisa, argindarra murriztea ezarri zen 2007rako hobekuntzako helburu gisa, eta PLUetan argia detektatzeko edo tenporizatzeko ekipak jarri ziren. Hauexek izan dira ingurumenaren inguruko beste inbertsio batzuk:

URTEA	EKINTZA	ZENTRUA	INBERTSIOA
2006/07	Fatxada berritzea eta leihoak ixtea.	Rekalde	576.816
2007	Kogenerazio termikoa	Sáez de Buruaga eta Sagarmínaga	80.344
2007	Zentroetan puntu berdea sortzea	Zentro guztiak	7.872



6.5. Ingurumenaren Gaietako Gorabeherak

Zorrotzako osasun zentroan, 2007ko martxoan, gorabehera bat izan zen informaziozko ezak eraginda. Garbiketako profesional batek, ohiko profesional baten ordezkioak, ez zuen utzi hondakin zorrotzen edukiontzia bat hondakinen gelan. Zuzendari ekonomiko finantzarioak, unitate-buruak eta Prebentzio Oinarriko Unitateko profesionalak gorabeheraren azterketa eta jarraipena egin zuten. Horren ondorioz, zentroetako hondakin sanitarioak kudeatzeko prozedura berrikusi eta kudeaketari ekin zitzaizkien kontratatutako profesionalak trebatzeko.

Ez da jasota utzi beste gorabehera aipagarriarik.

6.7. 2008ko Erronkak

BiEn uste dugu berrikuntza etorkizuneko erronka dela, egungo eta hurrengo gizartearentzako iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren gaineko irizpide argiak kontuan izanda. Ildo horretan, hobekuntzarako proiektuak planteatzen jarraitzen dugu. Jakin badakigu proiektu guztiak ezin egin daitezkeena urte bakarrean, zentro ugari dagoelako eta horietako bakoitzeko balizko jabearazte- eta ezartze-mailen kopuru handia delako; hala ere, 2008rako erronka-multzo bat eskaintzen da:

- Ur-kontsumoa murriztea
- Argindarraren kontsumoa murriztea
- Berokuntzako gasaren kontsumoa murriztea
- Pilen kontsumoa murriztea



7. Egiaztatzea eta Baliozkotzea

Adierazpen honen ingurumen-egiaztatzailea Normalizazio eta Egiaztapeneko Espainiako Erakundea izan da (AENOR), Egiaztapenerako Nazio Erakundeak egiaztatua (ENAC) ES-V-0001 zenbakiarekin.

Ingurumenari buruzko adierazpena herritarren eskura jarriko da formatu inprimatuan BiE Eskualdeko Osakidetzaren osasun zentroetan, eta doan emango da, aurretik eskaera eginda.

2009. urterako ezarri da ingurumenari buruzko hurrengo adierazpena egiteko epea.

